


BERTSOTAN HASIKO NAIZ, NERE ABENTURA KONTATZEN



Joxemari Aizpurua

Nere kaleko jaietan
Asi ginan boseoa prestatzen.
Asi ginan berriketan iru,
zaindari Isidro jauna,
tabernari famatua izana.
Eskaiñi zigun pezeta bana,
Pablo eta neri, bere laguna.




Plaza gañezka
gure
inguruan.
Ama
leiotik
garraxi batean.
Eta guk
gure buruan,
non gastatuko
ote genuan.

Alako batean azaldu zan ama.
Neri derrigor jeistera narama.
Albornozen lepotik eldu
Eta beraño ausi egin zidan, puskatu.
Etxera sartu eta oyiaspean gertu.
Beste zigorrik ez nuen artu,
Bañan bai parragarri geratu.



Oharra: Joxemari Aizpuruak kontatzen digun gertaera egiz gertatutakoa da, gerra aurrean. Artean boxeoa modan zegoen Errenterian, Uzkuñun eta Pako Buenoren garaiak baitziren.



Konbate honetako boxealariak Joxemari bera eta Pablo Iglesias (Sordo) izan ziren, hamazazpi urteko mutil bikainak. Baina burrukaldia hasteko zegoenean, Joxemariaren ama agertu zen eta semeari bi belarrondoko emanaz etxera eraman zuen.

Hor amaitu zen Joxemari lagunaren boxealari karrera bel-durgarria.